

Ohorezko kideak

Artezkartzaren aurkezpena

Don Rafael Barbier Iturmendi es miembro Laguntzaile de Labayru casi desde sus inicios, pero lo más relevante para esta Fundación es el reconocimiento de su apoyo decidido y constante, prácticamente desde la erección del Instituto Labayru desde su cargo de director de la Caja de Ahorros Vizcaina.

Don Rafael Barbier, como director de la CAV, y Leopoldo Zugaza, como director del Departamento Cultural de la misma, fueron los principales apoyos de Labayru, principalmente en el tema de las publicaciones.

Pero Don Rafael Barbier ha mantenido una vinculación personal y activa a Labayru durante todos estos largos años. Ha venido asistiendo a esta Asamblea General de Labayru hasta hace muy poco tiempo, y participando en el apartado de ruegos y preguntas, aportando sus sugerencias.

No olvidaremos que Labayru ha contado con su apoyo económico de manera constante durante todos estos años.

A sus 97 años nos comunica que, justamente estos días se encuentra bajo de forma, que siente el peso de los años, y que no asistirá a la Asamblea de este año. Pero, en cualquier caso, nos comunica que nos agradece de corazón la distinción de Laguntzaile Ohorezko otorgada por nuestra Fundación, y nos recuerda que tiene mucho afecto a Labayru y desde hace muchos años.

Begoña Etcheberry Atxotegi, “Labayru Ikastegia” 1977. urtean sortu izan zan urte beretik dogu Laguntzaile. Beronen senarra dan eta geroago Labayuren Artezkartzza Burua izango zan Javier Ortega baino lehenagotik dogu Labayuren Laguntzaile.

Euskerazaletasunean eta kristautasunean sendo errroturiko emakumea dogu Begoña Etcheberry.

Derriko Euskal Ikastaroan ikasi eta landu eban berak hain barrutik maite eban euskal hizkuntza, eta Ikastaroaren bost mailako programa osoa burutu arte ez eban bakerik izan, euskera lantze jardunean.

Begoñaren ezaugarririk aitatzekotan, emakume isila, baina ekina izan dala esango genduke. Oinarri-lanetan, basean, beti hortxe ekinean jardun dauena inurriaren antzera.

Gizonagaz batera, Labayru erakundeagazko hartuemon estuan egon da honen ibilbide guztian; gugandik hur-hur sentidu dogu beti, eta zintzo, sendo eta eten barik izan dogu Labayuren laguntzaile eta ongile.

Labayru Fundazioaren izpiritua ederto islatzen da beronen biografian: kristau eta euskalzale. Katekesia euskeraz irakasten jardun izan dau, Unesco Etxearen kide, Txomin Bereziartua abade eta gure Laguntzailearen inguruari batu zan, beste egitasmo batzuetara lez, Labayru Ikastegiaren lagun izatera.

Labayru Fundazioan Ohorezko Laguntzaile izendatzeko meritu guztiak ditu Begoñak, bere izaera apalak be ezkutatzen ez dauena.

Segundo Oar-Arteta jauna

Gernikako semea. Gernikar-gernikarra, inorgaitik esatekotan. Ikasketaz ekonomia-zuzenbide arloan eta historian lizentziatua, titulu biren jabe.

Labayru Ikastegian 1990. urtean hasi zan lanean. Bere hitzetan:

“En 1990 me incorporé a trabajar en el Departamento de Etnografía de Labayru Ikastegia, bajo la dirección de Ander Manterola, en la redacción del primer volumen del Atlas Etnográfico, dedicado a la Alimentación.

A partir de entonces he colaborado como redactor en los ocho volúmenes hasta ahora publicados, realizando también la investigación de campo en la comarca de Gernikaldea”.

Legez 2013. urtearen abenduan igaro bazan be zaharsaridun egoerara, hurrengo lau urteotan be Labayru Fundazioari loturik iraun dau, batez be Atlasaren zortzigarren liburukia, *Agricultura en Vasconia* burutu eta argitaratu dan arte.

2018ko urtarrilak aburrera arte egon da gure artean azken urteotan, ia egunero, eta *Etniker Bizkaia* eta *Litterae Vasconicae* aldizkarien Idazketa Batzordekoia izan da. Hori baino gehiago; beronek bideratu ditu aldizkari bion aleak joako urte luzeetan.

Lege arloan aditua izanik, lege aholkulari izan dogu Segundo urte luzeotan. Eta Fundazioaren Zuzendaritzari, honek berari eskatu deutsazan aholku eta arduretan, zintzo eta bizkor erantzun deutso beti.

Berba laburrez, –zeuri zuzenduak, Segundo–, amaituko dot zu Ohorezko Laguntzaile izendatzeko aurkezpen hau. Asko igarriko da zure hutsunea Labayruren Derioko egoitzan, Segundo. Baino aurrerantzean be, zeuri gogoak emon ahalako neurrian alkarregazko lokarria sendoa izan dadin, litzateke gure gogoa.

Bilbon, 2018ko martiaren 21ean